



Promoción y Desarrollo
Promozioa eta Garapena


Sintesia

Proyde - Proega 2001. urtean lehentasunezko helburu sozial batekin sortutako Fundazioa da: Garapenerako lankidetzeta.

Gure Fundazioa, **boluntariotzan** oinarritua, sozialki bere zereginarekin koherentea den GGKE gisa ikusita dago eta **ospe handia** du egiten duen lanagatik, bai garapenerako hezkuntzan bai Garapen Proiektuak aurrera ateratzeko orduan.

HAU DA GURE AURKEZPEN TXARTELA:

- Proyde - Proega Fundazioa Espainia eta Portugaleko La Salleko GGKEen Sarearen barruan dago eta Proyde Zentralarekin (Madril) koordinazio estuan dihardu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko **La Salle** ikastetxe guztiek ehundutako **SAREA** osatzen dugu: **6.000**tik gora familiak Proyde - Proega daukate beren GGKE erreferentzi gisa.
- Proyde - Proegak bi jarduera alorretan dihardu:
 - Garapenerako eta Solidaritaterako Hezkuntza, gure lurraldean.
 - Garapen Proiektuen sustapena, lurralde pobretuetan.
- **Hiru kontinentetan dihardugu:** Afrikan, Amerikan eta Europa Ekialdean; eta beraietan 200dik gora Garapen Proiektu jarri ditugu abian.
- **Fondo esanguratsuak kudeatzen ditugu:** 2001 geroztik, Proiektuen finantziatorako diru kopurua **lau milioi euro** ingurukoa izan da. **Nondik lortzen ditugun fondoak?** Proyde - Proegak entitate publiko eta pribatuetatik, eta bere oinarri sozial zabal eta iraunkorretik jasotzen ditu baliabide ekonomikoak.



Proyde - Proega

PROMOCIÓN Y DESARROLLO - PROMOZIOA ETA GARAPENA

*Toki xume askotan
jende xume askok
gauza xume asko eginez,
mundua alda dezake.*

- NOR GARA
- SENDOTASUNA, BERMEA, SERIOTASUNA
- HAUEK DIRA GURE PRINTZIPIOAK
- HAUEK DIRA GURE GIZA BALIABIDEAK
- HAU DA EGITEN DUGUNA.
- GARAPENERAKO HEZTEN DUGU
- GARAPEN PROIEKTUAK SUSTATZEN DITUGU
- HIRU KONTINENTETAN GAUDE
- BERREHUNDIK GORA PROIEKTU
- ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK HAUTATZEN DITUGU
- NORK FINANTZATZEN DU HAU GUZTIA?



HELBIDEA: Madalena Jauregiberri, 2.
Postakutxa 851
20.080 Donostia-San Sebastián
Tf: 943-456300
E-MAILA: proega@lasalle.es
WEB ORRIA: <http://www.proyde-proega.org>

NOR GARA

“Fundación Proyde - Proega, Promoción y Desarrollo / Promozio eta Garapena, con el Tercer Mundo” fundazio ongintza-sorospenerako eta lan-arlokoa da, **irabazi-asmorik gabekoa**, 2001ean sortua lehentasunezko helburu sozial batekin: **garapenerako lankidetz**a. Estatutuek dioten bezala, hau da Fundazioaren *fundazio helburua*:

- *justizian eta solidaritatean, lan boluntarioan, eta garapenean hezte*a.
- *herrialde behartsuenen promozioa eta garapena*;
- *garapen proiektuetan oinarritutako lankidetz*a, *mota ezberdinetako jardueren bitartez*:
 - 1) *Garapen sozio ekonomikoa, begiraleen formazioa, gazte eta helduen alfabetatzea, langile prestatuak bidaltzea.*
 - 2) *Helburu horiek lortzeko egiturak ezartzea.*
 - 3) *Justizian eta garapenean hezte*a, *Euskal Autonomia Erkidegoan.*

Horrela, Proyde - Proegak, “Kristau Eskoletako Anaiak-La Salle” erakundearekin lotuta izanik, konpromiso sozial bikoitz hau bere gain hartzen du:

- Pertsona oro duintasunez bizi daitekeen mundua eraikitzea posible dela sinestearen **lekuko izatea**.
- Ekintzen eta konpromisoen solidaritatea bizi nahi duten guztientzat **partehartzerako bide izatea**.



SENDOTASUNA, BERMEA, SERIOTASUNA

Gure Fundazioa SARE bat da, batik bat baina ez bakarrik Euskal Herrian diren **La Salle** ikastetxeek ehoa. La Salle ikastetxeetako 6.000tik gora familiek hartzen dute Proyde - Proega beren GGKE erreferentzia gisa. Gure erakundea lehenetsi egiten dute solidaritatea adierazteko bide bezala. Horrek sendotasuna eta egonkortasuna ematen dizkio Proyde - Proegari.

Baina, gainera, gure Proiektuen hautatze, finantzatze, burutze, jarraipen eta ebaluazioak eraginkorra eta emankorra dela erakutsi du, eta hortik datorkigu sinesgarritasuna, ez gure bazkide eta zaleen aldetik bakarrik, baita beren baliabideen zati bat lankidetzari ematen dioten entitate publiko eta pribatuen aldetik ere.

Bestalde, Proyde - Proega bere misioarekin koherentea den GGKE gisa ikusita dago, eta ongi irabazitako izena dauka garapenerako hezkuntzan, sentsibilizazio sozialean, eragin politikoan, boluntarioen sustapenean eta Garapen Proiektuen burutzapenean egiten duen lanagatik.

HAUEK DIRA GURE PRINTZIOAK

Proyde - Proegak onartzen dituen konpromisoak bere jarduera zuzentzen duten zenbait uste sendoetan oinarrituta daude, horiek ematen baitiote koherentzia eta zentzua. Hauek dira bere oinarritzko printzipioak:

- **Pertsona guztiek daukate bizimodu duin baterako eskubidea**, eta guztiek merezi dute bizi kalitate egokia. Mundutik erauzi egin nahi ditugu pobrezia eta miseria. Hori lortu ahal izaten laguntzeko beste entitateen baliabideen eta geure baliabide propioen bila dihardugu.
- **Pertsonak eta herriak dira beren garapenaren protagonistak.** Gure erakundeak lurralde pobretuen promozioan eta garapenean dihardu, eta pertsona horiek hartzen ditu prozesu horretako protagonista nagusitzat. Horregatik beraien eskatzen dizkiguten, eta gure helburuekin bat datozen, promozio eta garapenerako Proiektuetan esku hartzen dugu.



- **Pertsonak eta herriek beren berezko baloreak dauzkate**, guk ezagutu eta onartu behar ditugunak. Horregatik gaude haiekin kontaktuan eta horregatik zabaltzen ditugu haien berriak, ezagutzera ematen haien aberastasunak, haien konpromisoak, Proiektu eta lorpenak.
- **Hezkuntza garapenaren eragilea da**, ezinbesteko osagarria pertsonak bete-betean gara daitezten, bai lurralde pobretuetan bai bizi garen gizartean. Horregatik lehenesten ditugu hezkuntza Proiektu eta programak. Eta hori, ez bakarrik lurralde horietan, baita geure gizartean ere, sentsibilizazioa landuz, solidaritatean eta justizian heziz, eta gure zenbait kultur baloreen aldaketa sustatuz.
- **Solidaritate Sareak sortzen baditugu mundu berria posible izango da.** Gizaki guztiontzat bizi-kalitate duina lortzeko, solidaritatean oinarritutako mundu berri bat ezarri beharko dugu. Horregatik saiatzen gara gure helburu berdinak dauzkaten erakunde eta pertsonekin solidaritate sareak sortu eta beraietan integratzen.



GURE GIZA BALIABIDEAK

Proyde - Proega boluntarioran oinarritutako GGKE bat da. Beraz, bai Egoitza zentrolean bai tokian tokiko ordezkarietzan diharduten ia pertsona guztiak **boluntarioak** dira.

Izan ere, Proiektuen kudeaketarako lanaldi erdirako kontratatutako pertsona bat dauka, eta 250etik gora boluntario.

TOKIAN TOKIKO ORDEZKARITZAK

Proyde - Proegak Erkidego Autonomikoko hiri eta herri hauetan dauzka ordezkariak: Andoainen, Beasainen, Bilbon, Donostian, Eibarren, Irunen, Sestaon, Zumarragan eta Zarautzen.

Proyde - Proegak prestatu egiten ditu bere boluntarioak **Udako Proiektuetarako Formazio** programaren bitartez: Atzerrian epe motzean jardungo duten boluntarioen formazioa.

Boluntarioez gain, Proyde - Proegak **700 lankide** dauzka, eta gizarte oinarri sendo eta egonkorra, **9.500dik** gora **persona** dauzkana, La Salleko Kristau Eskoletako Anaiak Euskal Herrian dauzkaten **15 ikastetxeetan**.

HAU DA EGITEN DUGUNA

Garapenerako lankidetzaren marko orokorraren barruan, Proyde - Proegaren jarduera bi mundutan garatzen da modu paralelo eta osagarrian:

- **Garapenerako eta solidaritaterako hezten dugu: Geure gizartea** sentsibilizatzen jarduten dugu, solidaritatean eta justizian heziz, eta gure zenbait kultur baloreen aldaketa bultzatuz. Azken helburua, alde batetik, bidegabekeria, berdintasunik eza eta baztertea sustatzen dituzten egitura sozio-politiko eta ekonomikoak antzaldatzea da, eta bestetik, egitura horien euskarri diren kultur baloreen aldaketa.
- **Garapen Proiektu eta Programak sustatzen ditugu lurralde pobretuetan,** heziketaren alorrean batik bat.



GARAPENERAKO HEZTEN DUGU

- **Kristau Eskoletako Anaien La Salle ikastetxeetan.** Proyde - Proegak sortu zenetik hezi nahi izan du justizian eta solidaritatean, eta bere ordezkartzen bitartez tokian tokian jarduera ugariak egiten ditu justizian eta solidaritatean hezteko. Eta Garapen Proiektuekin batera egiten du hori, modu paraleloan.

Jarduera hauek Egoitza Zentraletik proposatzen diren lema eta helburu komunak bitartez sustatu eta koordinatzen badira ere, jarduera konkretuak tokiko sormenaren eta inizatibaren arabera dira, ondorioz, jarduerak ugariak eta anitzak izaten dira.

Guztiak eskolaren eremuan gauzatzen dira, Proyde - Proegak hor bideratzen baititu jarduera horiek eta bertatik proposatzen baitizkio gizarteari. Kontuan hartzekoa da tokiko boluntario eta arduradun asko eta asko eskoletako irakasleak direla.

Hezkuntza baliabideen edizioa eta sentsibilizaziorako eta kanpainak sustapenerako materialen argitalpenak, Fundazioak hezkuntzaren alorrean egiten duenaren lagin txiki bat besterik ez dira.



Genero-berdintasunaren eta nesken eta emakumeen ahalduen alde



- **Eragin politikoa duten Azterlanen bitartez.** Gaurkotasunaren behaketa eta azterketa iraunkorrak modu eraginkorrean laguntzen du Proyde - Proegaren bizitza kudeatzen eta animatzen duen giza taldearen formazioan.

Hauek dira jarduera alor honetako gairik nagusienak: Heziketarako Eskubidea, Haurren Eskubideak, Nazioarteko Merkataritza Harremanak (MME, Bidezko Merkataritza, Arma Trafikoa eta Lehen Gaien suntsipena), Kanpo Zorra, Ekonomia Solidarioa (Banka Etikoa), Oinarrizko Sendagaiak - Biopirateria, Giza Mugimendu Alternatiboak (Itunak eta Solidaritate Sareak sortzea).

Aitatutako gai horietaz gain, besteak beste, honako jarduera honetan ere saiatzen gara: Itunen bilaketan eta beste GGKEkin batera lan egiten (Salletar GGKEen Koordinakundea eta Euskadiko GGKEen Koordinakundea).



GARAPEN PROIEKTUAK SUSTATZEN DITUGU

Garapen Proiektuek Proyde - Proegaren beste jarduera-eremu bat osatzen dute. Proiektuak hautatu, kudeatu, garatu eta ebaluatu ahal izateko, lurralde pobretuetan egiten ditugun ekintzak sei kategoria ezberdinetan banatu ditugu:

- **Heziketa Proiektuak:** Honako helburua dute: azpiegiturak, materialak eta ekipamenduak finantzatzea, eta hezkuntza entitateen giza baliabideen formazioa, bai hezkuntza arautuan bai helduen hezkuntzan.
- **Garapen Proiektuak:** Heziketarekin zerikusi zuzena ez duten azpiegiturak, materialak eta ekipamenduak finantzatu eta hezkuntza entitateetatik kanpoko giza baliabideen formazioa: emakumearen sustapena, osasuna, laborantza, ekoizpena, azpiegiturak...

Bai Hezkuntza Proiektuak bai Garapenerakoak hiru motakoak izan daitezke:

- Azpiegitura berrien **eraikitze** proiektuak.
 - Ekipamendu eta/edo materialak **erostea**.
 - Abian dauden hezkuntza eta garapen lanen hedapen edo hobekuntzarako **berriztapen** proiektuak.
- **Funtzionamendu Proiektuak:** Helburua, abian dauden garapen lan eta programen finantzatze kostuei laguntzea da.
 - **Hezitzaileen eta tokiko garapenaren eragileen Formaziorako Proiektuak:** Proiektu hauen bitartez bekak eman nahi zaizkie hezkuntza eta/edo garapen Programen erantzukizuna hartuko duten tokiko arduradunei.
 - **Larrialdi Proiektuak:** Helburua, hondamen naturalek edo gatazka armatuek sortu dituzten egoera larriak pairatzen dituztenei laguntzea da.
 - **Udako Proiektuak:** Horiei esker bidaltzen dira boluntario taldeak, Proyde - Proegak martxan dauzkan zenbait proiektutan lagundu ahal izateko.



HIRU KONTINENTETAN GAUDE

Proyde - Proegak hiru kontinentetan dihardu modu eraginkorrean, Garapen Proiektu askoren bitartez.

- **Afrikan gaude.** Gure Proiektuetako asko Afrikan burutu dira. Lurralde hauetan: Togon, Beninen, Boli Kostan, Ginea Konakryn, Burkina Fason, Madagaskarren, Ruandan, Somalian, Mozambiken, Hego Afrikan eta Egipton.

- **Amerikan gaude.** Amerika da egindako Proiektuetan bigarren kontinentea. Hara lurraldeak: Guatemala, Bolivia, Peru, Ekuador, Dominikar Errepublikak, Paraguay, Venezuela eta Argentina.
- **Europa Ekialdean gaude.** Proyde - Proegak luzaz dihardu Europa Ekialdean lanean, **Errumanian**, hain zuzen ere.

BERREHUNDIK GORA PROIEKTU

- Proyde - Proegak **200dik gora Garapen Proiektu** jarri ditu martxan hiru kontinentetan: Afrikan, Amerikan eta Europa Ekialdean. Gehienak heziketaren munduarekin lotuta daude eta behartsuenei laguntzera zuzenduta: haur eta gazteei, emakumeei...
- Hauek dira Proyde - Proegaren proiektu gehien hartzailleak izan diren **10 lurraldeak**: Togo, Benin, Boli Kosta, Eritrea, Burkina Faso, Ginea-Conakry, Guatemala, Peru, Bolivia eta Argentina.
- 2001etik hona Proiektuetan banatutako diru-kopurua **4 milioi eurotik gorakoa da.**



ETORKIZUNERAKO PROIEKTUAK HAUTATZEN DITUGU

Proyde - Proegaren jarduera bermatzen duen abalik nagusienetakoa Proyde Zentralarekin batera egiten dugun Proiektuen kalitatearen hautapena eta segimendua da. Esperientzia partekatu horri esker balorapen serio eta eraginkorrerako protokolo bat egiteko gauza gara. Protokolo horrek oinarrizko lau fase dauzka: Proiektuaren Identifikazioa, Proiektuaren Hautaketa, Burutzapena eta segimendua eta Ebaluazioa.

- **Proiektuaren Identifikazioa.** Hau da Proiektu bat martxan jartzeko lehen urratsa. Zer, nork, noiz, nola, non eta zergatik jakin nahi dugu. Gure esperientziak esaten digu identifikazioa zenbat eta zehatzagoa izan, Proiektuak orduan eta arrakastatsuago izateko aukera handiagoa daukala.

Azterketarako onartzen ditugun Proiektuen inizatiba onuradunengandik etortzen zaigu beti. Arrazoia garbia da: pertsona bakoitza, giza multzo bakoitza da bere garapenaren protagonista.

Proiektuak proposatzen duen tokiko bazkideak zenbait ezaugarri izan behar ditu, antolamendu, ordezkaritza, esperientzia eta kudeaketarako gaitasunaren aldetik. Horregatik sustatzen du Proyde - Proegak lurralde pobretuetan lanean diharduten Kristau Eskoletako Anaien giza promozio- eta garapen-lana.

Lankidetzaren mota honek gure jardueraren oinarrizko hiru printzipio bermatzen ditu:

- Lurraldean Proiektua burutzen duen entitatearen sendotasuna eta sinesgarritasuna.
- Arrakasta eta eraginkortasuna Proiektuak egitean.
- Proposatzen den Proiektua luzarorako garapen-lan baten zatia dela.

Tokiko entitate batek Proiektu bat aurkezten digunean, bete egin behar du Proiektuen Eskakizunerako gure formularioa.

- **Proiektuaren Hautaketa.** Hauek dira hautaketarako irizpideak:
 - Proiektuaren **koherentzia** tokiko misioaren eta helburuekin, Proiektuaren ingurunearekiko egokitzapena, eta sinergia eskakizuna tokiko lankidetzaren eragileekin, Estatuarekin batik bat.
 - Proiektua **epe luzeko programa** baten zati izatea.
 - Proiektuaren **bideragarritasuna eta sostengarritasuna** geroan.
 - Proiektuaren balorazioa **pobreziaren** desagerpena eta **generoko inpaktua** kontuan hartzeko orduan.

Proiektua baietsi eta gero, entitate publiko edo pribatu bati aurkezten zaio finantzaketarako, eta Proyde - Proegaren fondo propioen laguntza ekonomikoa ematen zaio.

Baliabide ekonomikoak lortu eta gero emango zaio hasiera Proiektuari.

- **Burutzapena eta segimendua.** Proiektua burutzen doan heinean kontaktuak mantentzen dira proiektuaren onura jasotzen duen eragilearekin, eboluzioaren segimendua egin ahal izateko.

Txostenak egiteko, tokiko bazkideari **formularioa** bidaltzen zaio.

Proyde - Proegak **aldian aldiko bisitak egiten ditu** lan egiten duen lurraldeetara, bai Proiektuen jarraipena egiteko bai etorkizunerako Proiektuen ezagutza eta analisisa aztertzeko.

Proiektuari laguntza eman dioten **erakunde publiko nahiz pribatuekin**, Proyde - Proegak informazioa eskaintzeko konpromisoa hartzen du, haiek ontzat emandako garaian eta moduan, eta Proiektua bisitatzera gonbidatzen ditu.

Aurreikusitakoarekin alderatuta, aldaketa esanguratsuak gertatu badira, Proyde - Proegak jakinaren gainean jartzen ditu entitate finantzatzaileak eta lagundu egiten dio tokiko bazkideari Proiektuaren burutzapenean, justifikazioan eta ebaluazioan.

- **Ebaluazioa.** Bukatzeko, Proyde - Proegak azken txosten bat eskatzen du, non azaldu beharko diren Proiektuaren helburuak zein neurritan lortu diren eta Proiektuak izan duen inpaktua.

NORK FINANTZATZEN DU HAU GUZTIA?

Proiektu hauek burutzeko bideratutako baliabide ekonomikoak lau milioi eurotik gorakoak dira. Nondik lortzen dira fondoak?

Bere historia labur baina sendoan, Proyde - Proegak Euskal Herriko entitate publiko eta pribatu askoren laguntza eskatu eta lortu du. Emandako laguntzaren arabera, hauexek nabarmenduko genituzke: Eusko Jaurlaritza, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eibar, Zarautz, Irun, Andoain, Bilbo, Azkoitia eta Zumarragako udalak.

Bestalde, **lankideen** giza oinarri sendo eta iraunkorra ere diru-laguntza iturri garrantzizkoa da.

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen gutako bakoitzaren jarduerak eragina daukala mundu osoan. Elkarrekin, gizabanakoek, enpresek eta erakundeek politika sozial konprometituak eraman ditzakegu aurrera.

